

Uztailaren 5eko Eraikuntza Instalazio eta Obren gaineko Zergaren 15/1989 FORU ARAUA.

AZALPEN OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Eguneratutako Foru Arau osoa jasotzen da bertan.

Testuaren bukaeran, foru arauaren zenbat artikulua aldatu dituzten xedapenen zerrenda ere ageri da.

I. KAPITULUA: IZAERA ETA EGITATE EZARGARRIA	2
1. artikulua.....	2
II. KAPITULUA: SUJETU PASIBOAK	2
2. artikulua.....	2
III. KAPITULUA: OINARRI EZARGARRIA, KUOTA ETA SORTZAPENA.....	3
3. artikulua.....	3
IV. KAPITULUA: KUDEAKETA.....	3
4. artikulua.....	4
V. KAPITULUA: HOBARIAK	4
5. artikulua.....	4
XEDAPEN IRAGANKORRAK.....	7
Lehenengoa.....	7
Bigarrena.	7
INDARGABETZE XEDAPENA	7
AZKEN XEDAPENA.....	7

ATARIKOA

Gipuzkoako Hazienda Lokalen Foru Arau erregulatzailerak, haien tributua baliabideen artean, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga aipatzen du, Kontzertu Ekonomikoan aurrikusitakoaren arabera.

Horregatik, Foru Arau honek borondatezko izaerazko Udal Zerga horren arauketa espezifikoak barnebiltzen du, zergaren egintza ezargarria lan edo hirigintza lizentzia behar duen ezein eraikuntza, instalazio edo obra egitea delarik.

Zerga berriaren oinarri ezargarria eraikuntza, instalazio edo obraren benetako kostua izango da eta horri karga tasa aplikatuko zaio, tasa horien ezarketari dagokionez Udalek ahalmen haundia dutelarik.

I. kapitulua: Izaera eta egitate ezargarria

1. artikulua.¹

1.² Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga zeharkako tributua bat da, eta bere zerga-gaia sortzen da Gipuzkoako udalerrien barruan edozein eraikuntza, instalazio edo obra egiteagatik, horretarako obra edo hirigintza lizentzia jasotzea exijitzen denean, lizentzia hori jaso edo ez, edo erantzukizunezko aitorpena edo aurretiazko komunikazioa aurkeztu beharra dagoenean, baldin eta lizentzia ematea edo kontrol jarduera egitea zerga aplikatzen duen udalari badagokio.

2. Zerga ordaintzetik salbuetsita dago edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea, horren jabeak Gipuzkoako Foru Aldundia, Euskal Autonomia Erkidegoa, Estatua edo udal entitateak direnean, baldin eta, zergari lotuta egonik, zuzenean errepide, trenbide, portu, aireportu, obra hidrauliko eta populazioen eta ur zikinen saneamendura zuzenduta badago, nahiz eta horien kudeaketa, dela inbertsio lanetan dela artapen lanetan, organismo autonomoek egin.

II. kapitulua: Sujetu pasiboak

2. artikulua.³

1.⁴ Zerga honen subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, pertsona fisiko eta juridikoak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko

¹ 1. artikulua hau Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga Neurri Buruzko abenduaren 27ko 4/1999 Foru Arauaren 12. artikuluko Bat apartatuak berridatzi du, 2000ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

² Apartatu hau abenduaren 27ko 13/2012 FORU ARAUaren 6. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak zerga alorreko zenbait aldaketa onartzen ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunean sartzen da indarrean (2012/12/28ko GAO).

³ 2. artikulua hau toki entitateen zerga sistema aldatzen duen martxoaren 19ko 4/2003 FORU ARAUaren 5. artikulua bat zenbakiak aldatu du. Foru Arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean sartuko da indarrean, eta 2004ko urtarrilaren 1etik aurrerako sortzapena duten egitate ezargarrietan izango du eragina. (GAO 57 zki.a, 2003-03-25koa).

⁴ Apartatu hau 2016ko azaroaren 14ko 4/2016 FORU ARAUaren 10. artikulua aldatu du. Foru arauak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistema Euskal Zuzenbide Zibilar buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legea egokitu du.

2/2005 Foru Arau Orokorrak 35. artikulua 3. apartatua aipatzen dituen entitateak, eta testamentu-ahalordea erabili gabe duten herentziak, betiere eraikuntza, instalazio edo obraren jabe badira, haiek egiten diren ondasun higiezinaren jabeak izan edo ez.

Aurreko paragrafoan ezarritako ondorioetarako, eraikuntza, instalazio edo obraren gastu edo kostuak zeinek jasaten dituen, hura hartuko da haien jabetzat.

2.⁵ Eraikuntza, instalazioa edo obra subjektu pasibo zergadunak egiten ez duenean, zergadunaren ordezkotako subjektu pasibotzat hartuko dira lizentziak eskatzen dituztenak, erantzukizuneko aitopenak edo aurretiazko komunikazioak aurkezten dituztenak edo eraikuntzak, instalazioak edo obrak egiten dituztenak.

Ordaindutako zerga kuotaren zenbatekoa exiji diezaioteko ordezkotako zergadunari.

III. kapitulua: Oinarri ezargarria, kuota eta sortzapena

3. artikulua.

1.⁶ Eraikuntza, instalazio edo obraren benetako kostuak eratzen du Zergaren oinarri ezargarria; ondorio horietarako, kostu hori eraikuntza, instalazio edo obra gauzatzeko kostu materiala dela jotzen da.

Oinarri ezargarritik kanpo geratzen dira Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta erregimen berezietako antzeko beste zergak, eraikuntza, instalazio edo obrekin lotuta egon litezkeen tasa, prezio publiko eta udal mailako gainerako ondare-prestazioak, eta, orobat, profesionalen ordainsariak, kontratistaren mozkin enpresariala eta hertsari-hertsian exekuzioaren kostu materiala osatzen ez duten bestelako kontzeptuak.

2. Oinarri ezargarriari karga tasa aplikatuz aterako da Zerga honen kuota.

3.⁷ Zergaren karga tasa Udalak finkatuko du, eta ezingo da 100eko 5etik gorakoa izan.

4. Zergaren sortzapena eraikuntza, instalazio edo obra hasterakoan bertan gertatzen da, beharrezko lizentzia jaso ez bada ere.

IV. kapitulua: Kudeaketa

Foru arau hau GAO n argitaratu den egunean jarri da indarrean (2016-11-18 GAO), eta 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

⁵ Apartatu hau abenduaren 27ko 13/2012 FORU ARAUAREN 6. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak zerga alorreko zenbait aldaketa onartzen ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunean sartzen da indarrean (2012/12/28ko GAO).

⁶ 1 apartatu hau toki entitateen zerga sistema aldatzen duen martxoaren 19ko 4/2003 FORU ARAUAREN 5. artikulua bi zenbakiak aldatu du. Foru Arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean sartuko da indarrean, eta 2004ko urtarrilaren 1etik aurrerako sortzapena duten egitate ezargarrietan izango du eragina. (GAO 57 zki.a, 2003-03-25koa).

⁷ 3. apartatu hau Gipuzkoako Lurralde Historiko Zerga Neurriei Buruzko abenduaren 27ko 4/1999 Foru Arauaren 12. artikuluko bi apartatuak aldatu du, 2000ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

4. artikulua.⁸

1.⁹ Lizentzia eman edo erantzukizuneko aitorpena zein aurretiazko komunikazioa aurkezten bada, edo, lizentzia oraindik eskatu, eman edo ukatu gabe egonik edo aitorpena zein komunikazioa oraindik ez aurkezturik, eraikuntza, instalazio edo obra hasten bada, konturako behin-behineko likidazio bat egingo da, oinarri ezargarria honela kalkulatuta:

a) Interesdunek aurkeztutako aurrekontuaren arabera, betiere kasuan kasuko elkargo ofizialak hura bisatu badu, baldintza hori nahitaezkoa denean.

b) Ordenantza fiskalak propio ezarritako indize edo moduluen arabera, ordenantza horrek hala ezartzen duenean.

2. Eraikuntza, instalazio edo obra amaitutakoan, eta haren kostu erreal eta efektiboa aintzat harturik, Udalak, bidezko egiaztapen administratiboa egin ondoren, aurreko apartatuan aipatutako oinarri ezargarria aldatuko du, hala badagokio. Kasu horretan, behin betiko likidazioa egingo du, eta subjektu pasiboari behar den zenbatekoa eskatu edo, hala bada, itzuliko dio.

3. Eraikuntza, instalazio edo obrari dagokion hirigintza lizentzia jasotzeagatik subjektu pasiboak tasa gisa ordaindu duen edo ordaindu behar duen zenbatekoa kuota osoan kenkariduna izatea edo Zergan hobarituta egotea arautu dezakete ordenantza fiskalek.

4. Udalek autolikidazio erregimenean eskatu ahal izango dute Zerga hau.

5. ¹⁰Udalek zerga hau eta lizentzia emateko tasa modu bateratu eta koordinatuan kudeatzeko sistemak ezarri ahal izango dituzte beren ordenantza fiskaletan.

V. kapitulua: Hobariak¹¹

5. artikulua.¹²

⁸ 4. artikulua hau Gipuzkoako Lurralde Historiko Zerga Neurriei Buruzko abenduaren 27ko 4/1999 Foru Arauaren 12. artikuluko Hiru apartatuak berridatzi du, 2000ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

⁹ Apartatu hau abenduaren 27ko 13/2012 FORU ARAUaren 6. artikuluko hiru apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak zerga alorreko zenbait aldaketa onartzen ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunean sartzen da indarrean (2012/12/28ko GAO).

¹⁰ 5.apartatu hau toki entitateen zerga sistema aldatzen duen martxoaren 19ko 4/2003 FORU ARAUaren 5.artikuluaren hiru zenbakiak gehitu du. Foru Arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean sartuko da indarrean, eta 2004ko urtarrilaren 1etik aurrerako sortzapena duten egitate ezargarrietan izango du eragina. (GAO 57 zki.a, 2003-03-25ekoa).

¹¹ V. Kapitulua hau Gipuzkoako Lurralde Historiko Zerga Neurriei Buruzko abenduaren 27ko 4/1999 Foru Arauaren 12. artikuluko Lau apartatuak gehitu du, 2000ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

¹² 5.artikulua hau toki entitateen zerga sistema aldatzen duen martxoaren 19ko 4/2003 FORU ARAUaren 5.artikuluaren lau zenbakiak aldatu du. Foru Arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean sartuko da indarrean, eta 2004ko urtarrilaren 1etik aurrerako sortzapena duten egitate ezargarrietan izango du eragina. (GAO 57 zki.a, 2003-03-25ekoa).

1. Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzkoak, 9. artikuluan xedatutakoaren arabera, udalerriek honako hobariak arautu ahal izango dituzte beren ordenantza fiskaletan zerga kuotaren gainean:

a) 100eko 95era bitarteko hobaria, eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.

b)¹³ 100eko 95era bitarteko hobari bat, eraikuntza, instalazio edo obretan, baldin eta:

— Eguzki energiaren edo beste energia berriztagarri batzuen aprobetxamendu termiko edo elektrikoa ahalbidetzen duten sistemak ezartzen badira. Hobari hori aplikatzekotan, beroa sortzeko instalazioek administrazio eskudunaren homologazioa duten kolektoreak edo berokuntzako eta ur beroko sanitarioko sistemak (UBS) eduki behar dituzte.

— Haien xedea bada A edo B motako energia etiketa bat lortzeko energia birgaikuntza. Horretako, hobari portzentajea aldakorra izan daiteke, energia etiketaren motaren arabera.

— Haien xedea bada energia birgaikuntza eta irisgarritasuna barne hartzen dituen higiezinaren birgaikuntza integrala. Horretarako, energia birgaikuntzaren xedea izan behar da A edo B motako energia eraginkortasuneko etiketa bat lortzea.

— Udalerriko auzo edo eremuetan energia berriztagarriak sartzeko birgaikuntza integraleko proiektuen testuinguruan egiten badira.

Letra honetan aipatutako hobaria aplikatuko da, bakar bakarrik, indarrean dagoen legeriaren arabera derrigorrez inbertitu behar ez diren kopuruen gainean.

c) 100eko 50era bitarteko hobaria, eraikuntza, instalazio edo obrak azpiegituretan inbertsio pribatuak sustatzeko planekin lotuta daudenean.

d)¹⁴ 100eko 50era bitarteko hobaria, babes publikoko etxebizitzekin zer ikusia duten eraikuntza, instalazio edo obrak direnean.

e) 100eko 90era bitarteko hobaria, eraikuntza, instalazio edo obrek pertsona ezinduen irisgarritasun eta habitagarritasun baldintzak errazten dituztenean.

f)¹⁵ 100eko 90erainoko hobari bat ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak instalatzeko beharrezkoak diren eraikuntza, instalazio edo obren alde. Hobari

¹³ b) letra hau apirilaren 15eko 3/2021 FORU ARAUaren 6. artikulua aldatu du. Aipatutako foru arauak 2021. urterako zerga alorreko aldaketa jakin batzuk onesten ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako (GAO 2021-04-21) ondorengo egunean sartzen da indarrean.

¹⁴ Letra hau uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUaren 8. artikulua aldatu du. Aipatu foru arauak jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2008-07-11ko GAO).

hori aplikatuko bada, instalazioek administrazio eskudunaren homologazioa izan behar dute.

g)¹⁶ 100eko 50erainoko hobari bat, zuzenean ekonomia zirkularrarekin lotutako xedea duen jarduera ekonomiko bat egiteko beharrezkoak diren eraikuntza, instalazio edo obren alde.

Horretarako, jarduera ekonomiko baten xedea zuzenean ekonomia zirkularrarekin lotuta dagoela ulertuko da jarduera ekonomikoaren helburua hondakinak balorizatzea bada.

2. Aurreko 1 apartatuko a) letran aipatzen den hobaria aplikatzea bidezkoa bada, hortik ateratzen den kuotari aurreko 1 apartatuko b) letran jasotako hobaria aplikatuko zaio.

Aurreko 1 apartatuko a) eta b) letretan aipatzen diren hobariak aplikatzea bidezkoa bada, hortik ateratzen den kuotari aurreko 1 apartatuko c) letran jasotako hobaria aplikatuko zaio.

Aurreko 1 apartatuko a), b) eta c) letretan aipatzen diren hobariak aplikatzea bidezkoa bada, hortik ateratzen den kuotari aurreko 1 apartatuko d) letran jasotako hobaria aplikatuko zaio.

Aurreko 1 apartatuko a), b), c) eta d) letretan aipatzen diren hobariak aplikatzea bidezkoa bada, hortik ateratzen den kuotari aurreko 1 apartatuko e) letran jasotako hobaria aplikatuko zaio.

Aurreko 1. apartatuko f) letran jasotako hobaria aplikatuko zaio aurreko 1. apartatuko a), b), c), d) eta e) letretan aipatutako hobariak aplikatuzetik ateratzen den kuotari.¹⁷

Aurreko 1. apartatuaren g) letran jasotako hobaria aplikatuko zaio aurreko 1. apartatuaren a), b), c), d), e) eta f) letretan aipatutako hobariak aplikatuzetik ateratzen den kuotari.¹⁸

Artikulu honetan aipatzen diren hobarien gainerako alderdi substantibo eta formalak ordenantza fiskalean arautuko dira. Besteak beste, ordenantza fiskalak ezarri ahal izango du hobari horiek guztiak edo horietako batzuk aldi berean aplika daitezkeen edo ez.

¹⁵ Letra hau 2023ko urtarrilaren 17ko 1/2023 Foru Arauaren 10. artikuluko bat apartatuak gehitu du. Aipatutako foru arauak 2023. urterako zenbait zerga aldaketa onesten ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkarian Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean (2023/01/23ko GAO).

¹⁶ Letra hau maiatzaren 9ko 1/2025 Foru Arauaren 12. artikuluko gehitu du. Aipatutako foru arauak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistemaren erreforma eta zerga arloko beste aldaketa batzuk onesten ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jartzen da indarrean (2025/05/15eko GAO).

¹⁷ Paragrafo hau 2023ko urtarrilaren 17ko 1/2023 Foru Arauaren 10. artikuluko bi apartatuak gehitu du. Aipatutako foru arauak 2023. urterako zenbait zerga aldaketa onesten ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkarian Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean (2023/01/23ko GAO).

¹⁸ Paragrafo hau maiatzaren 9ko 1/2025 Foru Arauaren 12. artikuluko gehitu du. Aipatutako foru arauak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistemaren erreforma eta zerga arloko beste aldaketa batzuk onesten ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jartzen da indarrean (2025/05/15eko GAO). Akats zuzenketa 2025/06/13ko GAO.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa.

1. Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga, hala gertatuz gero, 1990.eko urtarilaren 1az geroztik exijituko da.

Egun horretara arte, Foru Arau honek erregulaturiko tributuak ordezkatzeko dituenak eskatuko dira.

Bigarrena.

Foru Arau honek aipatzen dituen Udalerrien egungo tributuen ezabaketa, horren aplikazioaren ondorioa izanik, bai eta tributu horiek gidatzen dituzten xedapenen indargabeketak, Administrazioak xedapen horien arabera aurretik sortutako zorak exijitzeko duen eskubidearen kalterik gabe ulertzen dira.

INDARGABETZE XEDAPENA

1. Honako Foru Arau indarrean sartzen den datatik, bertan ezarritakoaren aurka doazen maila bereko nahiz beheragoko xedapenak indarririk gabe utziko dira.
2. Aurreko atalean xedatutakoa Foru Arau honen Xedapen Iragankorretan ezarritakoaren kalterik gabe ulertzen da.

AZKEN XEDAPENA

1. Baimena ematen zaio Foru Diputazioari, honako Foru Arau hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapenak eman ditzan.
2. Foru Arau hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunean sartuko da indarrean.

ALDAKETAK

Honako zerrendan foru arauak izan dituen aldaketak jasotzen dira.

- ***Gipuzkoako Lurralde Historiko Zerga Neurri Buruzko abenduaren 27ko 4/1999 FORU ARAUA. (1999-12-31ko GAO)***
 - 12. artikulua 1. artikulua, 3. artikulua 3. apartatua eta 4. artikulua aldatu ditu, eta V Kapitulua bat gehitu du 5. artikulua bakarrezkin.
- ***Martxoaren 19ko 4/2003 FORU ARAUA, toki entitateen zerga sistema aldatzen duena. (GAO 57 zki.a, 2003-03-25koa).***
 - Bere 5. artikulua 2. artikulua, 3. artikulua 1 apartatua eta 5. artikulua aldatu eta 4. artikulua 5 apartatua gehitu dio.
- ***Zergei buruzko zenbait neurri onartzen dituen apirilaren 6ko 2/2004 FORU ARAUA (GAO 2004-04-16).***
 - Bere 10. artikulua 5. artikulua 1 apartatuko b) letra aldatu du.
- ***Gipuzkoako Lurralde Historikoko martxoaren 8ko 2/2005 Zergen FORU ARAU Orokorra (2005-03-17 GAO).***
 - Bere amaierako hamalagarren xedapenak 2. artikuluko 1. apartatua aldatu du.
- ***Uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUA, jardura ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena (2008-07-11ko GAO).***
 - 5. artikulua 1. apartatuko d) letra aldatzen du.
- ***2012ko abenduaren 27ko 13/2012 FORU ARAUA, zerga alorreko zenbait aldaketa onartzen dituena (2012/12/28ko GAO).***
 - Bere 6. artikulua prezeptu hauek aldatzen ditu:
 - 1. artikuluko 1. apartatua.

- 2. artikuluko 2. apartatua.
- 4. artikuluko 1. apartatua.
- **2016ko azaroaren 14ko 4/2016 FORU ARAUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistema Euskal Zuzenbide Zibilar buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legea egokitzea. (2016/11/18ko GAO).**
 - 10. Artikuluak 2. artikularen 1. apartatua aldatu du.
- **3/2021 FORU ARAUA, apirilaren 15koa, urterako zerga alorreko aldaketa jakin batzuk onesten dituen. (2021/04/21ko GAO).**
 - 6. artikuluko 5.1 artikularen b) letra aldatu du.
- **1/2023 Foru Araua, urtarrilaren 17koa, 2023. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituen (2023/01/23ko GAO).**
 - 10. artikuluko prezeptu hauek aldatzen ditu:
 - Bat apartatuak f) letra berri bat gehitzen dio 5.1 artikuluari.
 - Bi apartatuak paragrafo berri bat, azken aurrekoa, gehitzen dio 5. artikularen 2. apartatuari.
- **1/2025 Foru Araua, maiatzaren 9koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistemaren erreforma eta zerga arloko beste aldaketa batzuk onestekoa (2025/05/15eko GAO).**

Bere 12. artikuluko g) letra gehitzen du 5. artikuluko 1. apartatuari eta paragrafo bat 5. artikuluko 2. apartatuari.